

Eskolagune

## Guztiok gara biodibertsitatea

### ARLO/IKASGAIA:

- Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza

### ETAPA:

- Lehen Hezkuntza

Biodibertsitatea da gure planetako bizitzaren aberastasuna. Espezie bakoitza, handia edo txikia, erabakigarria da ekosistemaren orekan. Bizi-ohitura iraunkorrak hartzea ezinbestekoa da aniztasun hori zaintzeko. Ekoetxea Urdaibaira egingo dugun bisita honetan, bioaniztasunaren garrantziaz eta ingurunearekiko harremana nola hobetu dezakegun azalduko dizugu. Eman dezagun oreka lortzeko lehen urratsa!

